

# Laneko Osasunaren Informazio Buletina

79 alea / 2022ko urtarrila

## Berritasunak



**La salud en el  
trabajo es un activo  
Lanean, osasuna  
aktibo bat da**

**Prebentzioaren integrazioa eta 2021-2024ko Laneko Osasun Plana, 2022ko protagonistak.**  
**Prebentzioa Integratzeko Programa** eta **2021-2024ko Laneko Osasun Plana** sartutako programak Laneko Osasunaren Zerbitzuaren 2022ko jarduketen ardatzak izanen dira. Laneko Osasunaren 2022ko egutegia berriki banatu da Nafarroako enpresetan. Egutegi horretako mezuen xedea da, batetik, prebentzioa enpresaren kudeaketan benetan txertatzeko bidean aurrera egin behar dela azpimarratzea eta, bestetik, planean sartutako programen garrantzia datuekin erakustea.



**Nafarroak bi proposamen aurkeztu ditu Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua aldatzeko (39/97 ED).** NOPLOIk bi proposamen aurkeztu ditu laneko arriskuen prestakuntza mailak eguneratzeko (39/97 ED). Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko Hezkuntza eta Prestakuntza taldearen barruan. Gaur egun, eduki horien aldaketa eztabaidatzen ari da. Zehazki, oinarrizko maila aldatzea eta laneko arriskuen goi maila sortzea proposatzen da. Proposamenok datozen hilabeteetan eztabaidatuko dira, eta harrera ona egin diete Estatuko Administrazio Orokorrak, gainerako autonomia erkidegoek eta sindikatuek.

## Nabarmendua



**Sentsibilizazioa prestakuntza-etapatik abiatuta.** EU-OSHAk ziurtagiria eman dio María Ana Sanz IBri **Lan osasungarriak. Zama astunik ez** kampainan parte hartzeagatik; kampaña horrek gihar-hezurreta nahasmenduen prebentzioa izan du xede. Datuen Tratamenduko, Ofimotikako eta Artxiboko Eragiketetako lagunzailea izateko Lanbide Heziketako ikasleek eragin zuten ikastetxeak ekimen horretan parte hartu zean.

**Arriskuen prebentzioko prestakuntza ematea Errefuxiatuari Laguntzeko Spainiako Batzordeko gizarteratze eta laneratze programako pertsonei.** Laneko Osasunaren Zerbitzuko teknikariek berriki eman diete prestakuntza-saio bat Errefuxiatuari Laguntzeko Spainiako Batzordeko gizarteratze eta laneratze programako hamabi erabiltzaileri, Kondestablearen Jauregiko Civivoxean. Jardunaldiaren xedea izan da bereziki babesik gabe dauden etorkinei langileek dituzten eskubide eta betebeharren berri ematea.



**Ergonomiari buruzko ikastaro espezifiko Laneko Osasunaren Zerbitzuko langileendako.** Laneko Osasunaren Zerbitzuko medikuek eta teknikariek berriki parte hartu dute **Arrisku ergonomikoak ebaluatzeko eta kudeatzeko ikastaroan.** Ikastaroa 100 ordukoa izan da eta Ceneak eman du. Prestakuntza ekintza honen helburua, hauxe: enpresetako langileek izan ditzaketen arrisku ergonomikoen faktoreak identifikatu, ebaluatu eta kudeatzeko beharrezko gaitasunak ematea. Hartara, zerbitzu honen helburu nagusien artean dago datozen urteetan lesio-mota horien kopurua nabarmen murriztea.

## Araudia

---



[1076/2021 Errege Dekretua, abenduaren 7ko, maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua aldatzen duena. Errege dekretu horren bidez norbera babesteko ekipamenduak erabilzeari buruzko segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezarri ziren.](#)

Estatuko Aldizkari Ofiziala

## Berriak

---

- [El Parlamento insta al Gobierno a "impulsar" la prevención de riesgos laborales](#)  
Navarra.com
- [El futuro del trabajo: modelos híbridos apoyados en el teletrabajo](#)  
Prevención Integral
- [Pandemiak eragina izan du langileen osasun emozionalean](#)  
OSALAN
- [Los accidentes laborales de tráfico suben un 25% en el Estado](#)  
Diario de Noticias
- [El dato del día: ¿cuáles son las actividades más peligrosas?](#)  
Prevención Integral
- [Salud y bienestar psicológicos en la norma ISO 45005](#)  
Prevención Integral
- ['E-Osasuna'-ren hazkundea laneko segurtasunaren eta osasunaren eremuan.](#)  
OSALAN
- [Los riesgos psicosociales y organizativos en el trabajo afectan negativamente al colectivo LGBTI](#)  
EU OSHA
- [Plan de choque contra los accidentes mortales en el trabajo](#)  
INSST
- [Las mujeres siguen en desventaja laboral por ser madres.](#)  
Podcast OIT

## Argitalpen digitalak



**Informe sobre el Estado  
de la Seguridad y Salud  
Laboral en España**  
INSST



**Carta de Servicios del Instituto  
Nacional de Seguridad y  
Salud en el Trabajo 2022-25**  
INSST



**Erga Legislación N°11**  
INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPOLO) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPOLOra jo dezakezu, helbide elektroniko honetara: [ispln.ufl@navarra.es](mailto:ispln.ufl@navarra.es)

**ARGITARATZAILEA:**  
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua  
(Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)  
**848 423 771**  
Edizio-formatua: fitxategi elektronikoa.  
2022ko urtarrila